

OSASUN SAILA

3317

AGINDUA, 1992ko azaroaren 9koa, Osasun Sailburuarena, drogazaleen sorosketarako zentruen iharduerarako baldintzak aldatzen dituena.

Azaroaren 2ko 206/1982 Dekretuz eta irailaren 10eko 271/1985 Dekretuz ezarri zen osasun-zerbitzu, -zentru eta- establezimenduetarako administrazio- eta ososun-arloetako baimenen araubidea; eta horretarako betebeharrak teknikoak eta gutxienezko baldintzak ezarri eta beharresteko eskurantzak Osasun Sailak izango zituela aldarrikatu zen horietan.

Drogazaletasunaren arloa zehazten duten ezaugarri bereziak kontuan hartuta eman zen 1988ko maiatzaren 30eko Agindua, hain zuzen, drogazaletasun arloan diagnosi- eta terapia-lanak egiteko, zentruetara administrazio- eta osasun-arloetako baimena berariaz arautzeko.

Euskal Autonomi Elkarteko eremuan diharduten zentruak arautzeko eta horien jarraipena egiteko oso interesgarria izan arren aipatutako Agindu hori, onartu egin behar da baliuola nolabaiteko anbiguotasunik, Osasunari buruzko Lege Orokorrean osasun-zerbitzuez baliatzen direnen eskubideak bermatzeko orduan.

Guzti hori horreia izanik, Droga gaietarako Idazkaritza Nagusiari entzun ondoren eta azaroaren 2ko 206/1982 Dekretuak ematen dizkidan ahalmenez baliatu, honako hau

XEDATU DUT:

1. *atala*.- Zentruak sortzeko, eraikitzeko, eraldatzeko, tokiz aldatzeko edo isteko administrazio- eta osasun-baimenari buruzko 1988ko maiatzaren 30eko Aginduan beharretsitako baldintzez gain, Agindu honetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte drogazaletasun arloan terapia-lanak egiten dituzten zentruak.

2. *atala*.- Iharduteko baimena lor dezaten drogazaleen sorosketarako zentruak baldintza batzuk beharko dituzte.

1) Baliatzaile bakoitzaren nortasunari buruzko espediente egin beharko dute, konfidantzakoa izanik; honako puntuok egiazta ditzan agiriak bilduko dira bertan:

A) baliatzaileak sarrera, terapia-egitarau eta zentruko barne-araubideko arautegiari emandako onarpena;

baliatzailea adinez txikia bada, onarpena emateko lege-gaitasuna duenak egingo du bere orde;

epailaritzatik etorritako gaisoei ez zaie baldintza hori eskatuko;

B) baliatzaileak bere borondatez alta eskatzeko eskubidea duela jakiteko informazioa ematea;

C) baliatzailea zentroan sartzerakoan bai gizarte eta bai osasunaren ikuspuntutik zein egoeratan aurkitzen zen, baita bere ebaluazio eta diagnostia jasotzea ere;

D) sorosketa mota;

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

3317

ORDEN de 9 de noviembre de 1992, del Consejero de Sanidad, por la que se modifican los requisitos para el funcionamiento de los centros de tratamiento de toxicómanos.

Mediante los Decretos 206/1982, de 2 de noviembre y 271/1985, de 10 de septiembre, se estableció el régimen de autorización administrativo-sanitaria de los servicios, centros y establecimientos sanitarios, declarándose competente al Departamento de Sanidad para establecer y exigir los requisitos técnicos y las condiciones mínimas de los mismos.

Habida cuenta de las especiales características que rodean el área de las toxicomanías, se dictó la Orden de 30 de mayo de 1988 regulando específicamente la autorización administrativo-sanitaria de los centros con actividad diagnóstica y/o terapéutica en el mencionado área de las toxicomanías.

Si bien dicha Orden está resultando de gran interés en la regulación y seguimiento de los centros que actúan en el ámbito de la Comunidad Autónoma, es necesario admitir que adolece de cierta ambigüedad en lo referente a la garantía de los derechos que la Ley General de Sanidad reconoce a los usuarios de los servicios sanitarios.

Por todo ello, oída la Secretaría General de Drogodependencias, y en uso de las facultades que me confiere el Decreto 206/1982 de 2 de noviembre,

DISPONGO:

Artículo 1.- Además de los requisitos exigidos en la Orden de 30 de mayo de 1988 sobre autorización administrativo-sanitaria para la creación, construcción, modificación, traslado o cierre, los centros con actividad terapéutica en el área de las toxicomanías deberán cumplir los requisitos que se establecen en la presente Orden.

Artículo 2.- Los centros de tratamiento de toxicómanos que obtengan autorización de funcionamiento quedarán obligados al cumplimiento de los siguientes requisitos:

1) Expediente personal y confidencial de cada usuario que incluirá documentación acreditativa de los siguientes extremos:

A) Aceptación por parte del usuario del ingreso, del programa terapéutico, así como del Reglamento el Régimen Interior del Centro.

En el caso de que el usuario sea menor de edad, la aceptación se realizará por quien tenga capacidad legal para ello.

No será exigible este extremo cuando se trate de pacientes judiciales.

B) Información facilitada al usuario sobre su derecho a solicitar el alta voluntaria.

C) Estado socio-sanitario en el momento del ingreso, así como su evaluación y diagnóstico.

D) Tipo de tratamiento.

E) balaitzaileak sarrera unetik eta alta jaso arte izandako bilakaeraren azalpena, izandako jarraipena eta zelako aldikotasunez egin zaion zehaztuz;

F) aldiari aldiari egin daitezkeen mediku-arakaketen egiaztapena;

G) alta edo irazpenari buruzko txostena, horrela gertatu bada;

H) beste zentzuren batera eraman beharrik izanez gero, baliatzaileak aldaketa-ekintza horretarako emandako onarpena;

2) Baliatzaileen sarrerak eta altak jasoko dira erregistro liburu batean; honako zehaztasunak hartuko dira hor:

- sarrerako eguna eta horretarako arrazoia;
- baliatzailearen izen-abizenak;
- NANaren zenbakia;
- helbidea;
- alta eguna eta arrazoia.

3) Barne-araubideko arautegia eduki behar da; baliatzaile guztiek ezagutu beharko dute eta bertan honakoak jasoko dira:

A) zentzuaren plaza-kopurua, ihardueren arautegi orokorra, helburuak azalduz, eta erabiliko den metodologia;

B) langileen eginkizun eta erantzukizunak;

C) baliatzaileen eskubide eta betebeharrak.

D) bisitak hartzeko eta zentzutik irtetzeko araubidea;

E) zentruz aldatzeko eta zentrutik irazteko arrazoiak;

F) baliatzaileek egin beharreko iharduerak, beti ere helburuei eta erabili beharreko metodologiari egokituak; horien ondoriozko onurek diru-sarrerarik sortzen badute, zentruko bertako ihardueretarako ezarri beharko dira.

4) Erreklamazio-Liburuak ere izan behar da, baliatzailearen eta berorren senideen eskura;

5) Prezioen zerrenda eduki behar da, zerbitzua edo hileka zehaztuta, baliatzaileek eta berorren senideek noiz nahi ikusi ahal izango dutena.

3. atala.- Agindu honetan xedatutakoaren aurkako arau-haustea administrazioarekiko arau-haustetzat hartu dira, eta Osasunari buruzko 1986ko apirilaren 14ko Lege Orokorreko I. izenburuko VI. atalburuan xedatutakoaren arabera beharretsiko da.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Agindu hau indarrean jartzen den garaian, 1988ko maiatzaren 30eko Aginduaren babespean emandako administrazio- eta osasun-baimena duten drogazaleen sorosketarako zentruak, 6 hilabeteko epea izango dute euren iharduera Agindu honetan xedatutakoari egokitzeko.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean Agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko azaroak 9.

Osasun Sailburua,
I. AZKUNA URRETA.

E) Descripción de la evolución del usuario desde el momento del ingreso hasta el momento del alta con detalle del seguimiento realizado y periodicidad del mismo.

F) Acreditación de las revisiones médicas periódicas que se realicen.

G) Informe de alta o expulsión, en su caso.

H) Aceptación por parte del usuario de su traslado en el caso que sea preciso derivarlo a otro centro.

2) Libro Registro de Ingresos y Altas de usuario, que deberá contener los siguientes datos:

- Fecha de ingreso y motivo del mismo.
- Nombre y apellidos del usuario.
- Número del D.N.I.
- Domicilio.
- Fecha y motivo del alta.

3) Reglamento de Régimen Interior, que deberá ser conocido por los usuarios y en el que constará:

A) El número de plazas del centro, el programa general de actividades con indicación de los objetivos y de la metodología a aplicar.

B) Funciones y responsabilidades del personal.

C) Derechos y deberes de los usuarios.

D) Régimen de visitas y salidas del centro.

E) Motivos de traslado y expulsión.

F) Actividades a realizar por los usuarios, adecuadas a los objetivos y metodología utilizada, cuyos beneficios, si generan ingresos económicos, deberán reinvertirse en actividades propias del centro.

4) Libro de Reclamaciones a disposición del usuario y de sus familiares.

5) Régimen de precios determinado por servicios o mensualidades, que podrá ser conocido, en todo momento, por los usuarios y sus familiares.

Artículo 3.- Las infracciones a lo dispuesto en la presente Orden constituirán infracción administrativa que será exigida de conformidad con lo dispuesto en el Capítulo VI del Título I de la Ley General de Sanidad de 14 de abril de 1986

DISPOSICION TRANSITORIA

Los centros de tratamiento de toxicómanos que a la fecha de entrada en vigor de la presente Orden cuentan con la correspondiente autorización administrativa-sanitaria otorgada al amparo de la Orden de 30 de mayo de 1988 dispondrán de un periodo de 6 meses para adecuar su funcionamiento a lo dispuesto en la presente Orden.

DISPOSICION FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 9 de noviembre de 1992.

El Consejero de Sanidad,
I. AZKUNA URRETA.